



www.begiko.com

© Testua: 2001, JON ARRETXE

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-34-6

Lege-gordailua: M-16336-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagon

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Lurraren taupadak

Jon Arretxe

begiko

Biziari

Hasiera

7

Munduaren hasieran ez zegoen ez jenderik ez animaliarik. Egun batean zeru urdinean hodei zuri handia eratu zen, hodei hura ilundu eta euri bilakatu zen, eta tantak lurra bustitzen hasi ziren. Atertu aurretik isuri zen azken tanta pertsona bihurtu zen. Lehenengo gizon hura, mukaxi guztion aita, Kuma izan zen.

Kumak, emazterik ez zeukanez, ama lurra ernaltzen zuen gauero bere haziaz. Egun batean, lurretik kimu txikia sortu zen; denboraren poderioz, kimua landare sendo bilakatu zen, landareak leka itxurako fruitu handi bat eman zuen, eta egunsenti batean berorren barrutik umetxo bat atera zen, negarrez. Kumak neskatila hura besotan hartu eta bere alboan etzan zuen.

Umea, jaio ondorengo lehenengo gauean, oso bizkor hazi zen eta hurrengo goizean jesarrita egoteko gaua zen. Bigarren gauean ere asko handitu zen, eta biharramunean bera bakarrik ibil zitekeen. Eta hirugarren gaua pasatuta, eguna urratu orduko, Kumak bere begien aurrean neska gazte ederra ikusi zuen.

Neska hura laguntzat hartu zuen, eta bien arteko erlaziotik ume asko sortu ziren, lehenengo mukaxiak, geure arbasoak.

Egun batean Kumak kanoa hartu eta ibaian barruratu zen, emaztea ondoan zeukala. Bat-batean, gizonak uretara bota zuen bere burua eta, igeri egin beharrean, hondorantz jo zuen.

—Kuma, mesedez, ez ito, itzul zaituz nire albora!
—oihukatu zion emazteak, ikaraturik.

8 —Ezin dut —erantzun zion senarrak, une batez ur azalera irtenda—; orain hemen dago nire betebeharra.

Hitz horiek esanda, Kuma arrain bihurtu eta guztiz murgildu zen uretan. Ibaiaren hondoraino jaitsi zen eta hurrengo egunetan, hango sakonuneak ernalduz, eza-gutzen ditugun arrain mota guztiak sortu zituen.

Uretako munduaren ernaltze lana burutu ondoren, ostera ere lehorreratu zen Kuma, eta oihaneko animaliak sortzeari ekin zion. Horretarako era desberdinetako moldeak egin zituen buztinez, bere haziaz ernaldu eta bizia eman zien. Horrela agertu ziren txoriak, narrastiak, tximinoak, jaguarrak, tapirrak, basatxerriak, oreinak...

Kumari esker sortutako basa animalia haiek guztiak ugalduz joan ziren, arrainak bezalaxe, eta mukaxiontzat bizilagun nahiz harrapakin izan ziren aurrerantzean.

Hala kontatu zidan aitak niri, hala kontatu zion aitaitak aitari, eta hala kontatu nien nik neure seme-alabei.

Haurtzaroa

Duela urte asko, ni umea nintzela, mukaxiok bakean eta zoriontsu bizi ginen Andira ibaiaren ertzean kokatutako herrixketan, naturarekin bat eginda oihanaren magalean.

9

Gazteena suertatu nintzen zazpi neba-arrebaz osatutako familia batean. Anaia zen zaharrena, Kasiri; gero bost neska jaio ziren: Koowi, Tuasli, Hipipa, Nunkui eta Igobe; eta azkenean ni, Aturi. Nire jaiotzaren ondoren familia nahikoa handia zela erabaki zuten gurasoek eta herrixkako iwixinari deitu zioten. Hark putz egin zion amari sabelean eta harrezkero ez zen berriro haurdun geratu.

Hurrengo urteetan anai-arreba guztiek lagundu zieten gurasoei etxeko ume txikiena hazten, eta maitasun giroan eman nituen nire bizitzako lehen urte haiek. Gogoan ditudan estreinako oroitzapenak, oroitzapen lausotuak dagoeneko, orduko denborakoak dira, basora edo sorora eramaten nindutenekoak; basora ama lurrak eskainitako fruituak batzera: azaia, guarana, kokoak, gartzainak... Eta sorora guk geuk ereindako hazien emai-

tzak jasotzera: bananak, kanabera, mandioka... Azken horretatik irina, tapioka eta beste jaki batzuk ateratzen genituen, talde lanean izerdi asko botata, eta huraxe izaten zen gure elikaduraren oinarria, jatorduetan inoiz falta izaten ez zena.

10 Dena den, mandiokari zer erantsi beti egoten zen gurean, etxeko gizonak oso iaioak baitziren arrantza eta ehiza kontuetan. Haien alboan trebatuko nintzen ni hurrengo urteetan zerbatana nahiz arkua eta gezia erabiltzen, eta haien alboan hasiko nintzen ikasten, halaber, animalien ohiturak, landareen gaitasun sendagarriak eta, oro har, gure munduan bizirik irauteko eza-gutu behar ziren sekretuak.

Artean umea nintzela hasi nintzen Kasiriri eta aitari euren irtenaldietan laguntzen. Ia egunero abiatzen ziren ehizan edo arrantzan eta ni alboan izaten ninduten. Eguraldi oso kaskarreko egunetan baino ez ginen izaten zalantzan, abiatu-ez abiatu, gure herriak beti izan baitzion beldurra ekaitzari. Trumoiek ikaratu egiten gintuzten, halakoetan gure Jaungoikoa, Tupa, haserre zegoela eta lurrera harkaitzak jaurtitzen ziharduela pentsatzen baikenuen. Gauza gutxi ziren guretzat beldurgarriagoak tximistaz eta trumoiez hornitutako euri zaparradek etxeko babesetik urrun harrapatzea baino. Dena dela, oso gutxitan gertatzen ziren era horretako ekaitzak eta ia egunero irteten ginen janari bila.

Kanoan joaten ginenean, harrapakin ugariko ingurune-
etara hurreratu bitartean, aitak gogoko izaten zuen ipuinak
kontatzea, mukaxi jendeak, «egiazko jendeak», antzinatik

ahoz aho pasatutakoak. Ipuin ederrak izaten ziren haiek eta munduaren hasiera, zeruko izarren agerpena edo ilar-giaren sorrera bezalako kontuez aritzen ziren, edo basoko nahiz ibaietako izaki sorgindu eta sorgintzaileen berri ematen zuten. Oraindik gogoan daukat zelan kanoaren erdian etzanda joaten nintzen goxo-goxo entzuten eta zelan sarritan, beso gihartsuko bi gizon haien artean arrisku guztietatik salbu sentituz, loak hartzen ninduen eta aitaren ipuinetako pertsonaiekin egiten nuen amets.

Basoan ehizan aritzen ginenean, berriz, ez nintzen hain lasai sentitzen. Izan ere, isilpeko ibilaldi luze haietan, bidexka itzaltsuetatik mugituz, hamaika animalia kantu eta oihuez inguraturik, aitaren ipuinetako pertsonaia batzuekin gogoratzen nintzen eta beldurra sumatzen nuen. Sugeak edo jaguarrak bezalako espiritu boteretsuko piztiei begirune handia nien, baina bazegoen beste izaki bat, erdi pertsona erdi piztia zena, loa ere eragozten zidana: Kurupira, bularrean letagin zorrotzeko aho itzela zeukan begi bakarreko gizajalea, ehiztariak akabatu edo betiko galarazi egin zitzaieena.

—Eta Kurupirarekin topo egiten badugu, aita? —galdetzen nuen maiz, isilpean, inguratzen gintuen laharrarte trinkoan haren begirada sumatu ustez.

—Ez izan beldur, Aturi —erantzuten zidan halakoe-tan lasaitasunez—; Kurupira beraz gogoratzen ez diren ehiztariekin bakarrik haserretzen da. Beti begirunea gordetzen badiozu ez zaizu inoiz ezer txarrik gertatuko; alderantziz, Kurupirak lagundu egingo dizu harrapakinak bilatzen eta ez zara inoiz ere basoan galduko.

Aitak beti izaten zituen kontuan aholku haiek eta etxera itzuli aurretik harrapakinen zati bat edo bestelako opariren bat uzten zuen izaki misteriotsu harentzat.

Eta Kurupirarentzat ez ezik, ehizan zorte txarragoa izandako senide eta lagunentzat ere egoten zen haragi pusketaren bat, gurean ez baitzen inoiz janari faltarik egon, eta orduko denboran atsegin handiz laguntzen baikenion elkarri herrikide guztiok.

12 Bake giro ederrean bizi ginen, bada, antzinako garai hartan gure zazpi herrixkek zipriztintzen zuten eremu zabalean. Hala ere, bazegoen gauza bat, gauza bakarra, bake hura honda zezakeena, zeharo hondatu ere: katakanuekiko gatazkak.

Katakanuak eguzkia ezkutatzen zen alderdian bizi ziren, Jaruaka ibaiaren inguruetan, gure eremutik egun batzuetara. Nahiz eta gurearen antzeko hizkuntzaz mintzatu, betidanik izan genituen arerio, gurasoen aitaita-amamen sasoiaren baino are lehenagotik. Zaharrenek ere ez zekiten seguru zein zen elkarri genion gorroto itsuaren iturria, baina lantzean behin borroka latzak gertatzen ziren gure artean.

Katakanuak jende beldurgarria ziren. Senide hilen gorputzak zatitu eta jateko ohitura zeukaten, txikitatik zorrozten zituzten hortz-haginak erabiliz. Horren ondorioz, sekulako hatsa zerien ahotik eta guk «kiras-dunak» ezizena ematen genien. Beste herrien kontrako borroketan garaile suertatzen zirenean —gehienetan—, gizonak akabatu eta emakumeak eta umeak bahitu egi-

ten zituzten, euren herria gero eta indartsuagoa bilaka zedin. Eta ez zen hori dena; beste zerbait ere eramaten zuten aldean: hildako arerioen buruak. Gero txikitu egiten zituzten eta trofeo gisa gorde, etxean nahiz makila luzeen puntan iltzaturik.

Horrez gain, burezurrak bozina gisa erabiltzen zituzten, eta haien hots izugarrien bitartez iragartzen zituzten erasoak. Entzun orduko, geunden lekuan geundela, antzintzika itzultzen ginen denok herrira, defentsa lehenbailehen antolatzeko asmoz.

Gure aita izaten zen zeregin horren arduraduna, bera baitzen eremuko gizon ausartena, mukaxi guztion buruzagia, herrixka guztietako tuxauen tuxaua. Gatazka hasi aurretik, gerlariak urukumez eta jenipapoz margotzen zuten gorputza; gorritz eta beltzez, alegia: gorritz, isuriko zen odolaren adierazgarri, eta beltzez borrokan hil behar zutenekiko dolu gisa.

Triskantza itzelak egin zituzten katakanuek oihandar baketsuen artean, baina mukaxion kontra ez zuten arrakasta handirik izan, gu ere ondo antolaturik baiken eta gure gerlari kementsuak arerioak bezain trebeak baitziren arkua eta geziak, zerbatana nahiz aiztoa erabiltzen.

Aitaren gidaritzapean garaipen handiak lortu genituen, eta umetako sasoi hartan, bizi miesten nuen gizon haren babesean inoiz ezer txarrik gertatuko ez zitzailako irudipena izan nuen beti.

Egun batean, ordea, ustekabe larria gertatu zen familian. Gure aita, inoiz eritasunik ezagutu gabeko gizon

sendoa, bat-batean gaixotu eta hamakatik mugitzeko ere gauza ez zela suertatu zen.

Egoera ezezagun harengatik harriturik, iwixinari deitu genion, agure jakintsu hark gaixotasunaren sendabidea asmatuko zuelakoan, ohi zuen erara; iwixinak inork baino hobeto ezagutzen baitzituen edozein gaitz sendatzeko belarrak, edabeak eta bestelako bideak, mundu honetakoak nahiz bestaldekoak.

14 Aitarena makalaldi iragankorra izango zela pentsatu nahi izan genuen, baina iwixinak bisita egin zigunean, arduran jarri gintuzten seriotasun handiz ahoskatu zituen hitzek:

—Gaixotasun honek sendabide zaila dauka —esan zuen gure aitaren itxura ikusi orduko—. Borroka neke-tsu baterako prestatu behar dugu.